

◆ **"ur bedeinkatue ala ardao madarikatue obiaue?"**

*Ur bedeinkatua ala ardao madarikatua hobia?*

◆ **"urek eroan, urek ekarri"**

*Urak eroan, urak ekarri*

**"oilloak eskatzien txise  
eiñ artien itxaron"**  
*Oiloak eskaratzean txisa  
egin artean itxaron*

## 12.- AJEAK, AKATSAK, DOHAINAK

◆ **"alaba bakar azidxe, etxerako gerra bizidxe"**

*Alabea bakar hazia, etxerako gerra bizia*

◆ **"ariñ ta ondo usoak bakarrik"**

*Arin eta ondo usoak bakarrik*

◆ **"arranuek lumek bier,  
txepetxak be bai"**

*Arranoak lumak behar,  
txepetxak be bai*

◆ **"oilloak eskatzien txise eiñ  
artien itxaron"**

*Oiloak eskaratzean txisa  
egin artean itxaron*



◆ **"asko dekot ez dabenantzat nai"**

*"Asko daukat" ez dabenarentzat nahi*

◆ **"eiztari txarrak eskopetieri erru"**

*Ehiztari txarrak eskopeteari erru*

◆ **"gari ona kaixatik saltzen da"**

*Gari ona kaxatik saltzen da*

◆ **"artzeko pronto, emoteko tonto"**

*Hartzeko pronto, emoteko tonto*

◆ **"igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa"**

*Igaz igazkoa, aurten aurtengoa; nekez ezkonduko da ganorabakoa*

◆ **"itsuak be beittu eitten deu, baiña ikusi ez"**

*Itsua be begiratu egiten dau, baina ikusi ez*

## 13.- USTEAK

◆ **"balizko errotiek, urunik ez"**

*Balizko errotak, urunik ez*

◆ **"leku guztidxetan, txakurrak ortozik"**

*Leku guztietan txakurrak ortozik*

◆ **"urruneko beidxe, errapie andidxe"**

*Urruneko behiak, errapea handia*

◆ **"urruneko intxaurrek hamalau, urreratu ta lau"**

*Urruneko intxurrek hamalau, urreratu eta lau*

◆ **"usteak erdi ustel"**

*Usteak erdi ustel*

**"urruneko beidxe, errapie andidxe"**

*Urruneko behiak, errapea handia*



## 14.-GARAI ETA ASMO ONAK

◆ **"bart eñ dot amesetan: ona badan, danan partez; txarra badan, inontzat bez"**

*Bart egin dot amesetan: ona bada, danen partez; txarra bada, inorentzat be ez*

◆ **"egunik onenak, txarridxe ilten dan astie ta ezkontzen dan urtie"**

*Egunik onenak, txarria hilten dan astea eta ezkontzen dan urtea*

◆ **"ezkondu ta odolostak, beti berotan"**

*Ezkondu eta odolostak, beti berotan*

## 15.-ERETXIAK



◆ **"bi begik baño geidxau ikusten dabe lauk"**

*Bi begik baino gehiago ikusten dabe lauk*

◆ **"eguzkidxe nora, zapidxe ara"**

*Eguzkia nora, zapia hara*

◆ **"zenbat buru, ainbet aburu"**

*Zenbat buru, hainbat aburu*

## 16.- OSASUNA

◆ **"gabien parrandan ta goixien logure, ez zara zeu maitie osasunen gure"**

*Gauean parrandan eta goizean logura, ez zara zeu maitea osasunaren gura*

◆ **"osasune, esker gitxiko ondasune"**

*Osasuna, esker gitxiko ondasuna*

◆ **"zeiñ agiñetan dan miñe, an da miñe"**

*Zein hagineta dan mina, han da mina*

◆ **"zeiñ agiñetan dan miñe, an da miñe"**

*Zein hagineta dan mina, han da mina*

## 17.- ARDURAK

◆ **"batalako beste, txakurren odoloste"**

*Bata lako beste, txakurren odoloste*

◆ **"or konpon, marianton"**


*Hor konpon Marianton*

◆ **"nagusi askon astoa, goseak ill"**

*Nagusi askoren astoa, goseak hil*

◆ **"jabe askon txakurre, gosiek ill"**

*Jabe askoren txakurra, goseak hil*



**"nagusi askon astoa, goseak ill"**  
*Nagusi askoren astoa, goseak hil*

## 18.- AHOLKUAK

◆ **"gitxi gasteu, asko nasteu ta bueltak ekarri"**

*Gitxi gastau, asko nahastau eta bueltak ekarri*

◆ **"ondo ibilli, gitxi gasta ta bueltak amari"**

*Ondo ibili, gitxi gastau eta bueltak amari*

◆ **"sue ta ure, beleunetik behera"**

*Sua eta ura, belaunetik behera*

◆ **"jan barik,etxauk kakarik"**

*Jan barik ez jagok kakarik*



"jan barik,etxauk kakarik"  
*Jan barik ez jagok kakarik*

## 19.- IRAINAK

◆ **"barrie, burlie"**

*Barrea burlea*

◆ **"txistue,ondarrun burlie"**

*Txistua, Ondarrun burla*

## 20.-BESTEAK

◆ **"joan da etorri, txapela gorri"**

*Joan eta etorri, txapela gorri*

◆ **"kazuelie unteu, erroidxe egon zan lekuen baño janari geidxau dau ta"**

*Kazuela untau, erroia egon zan lekuan baino janari gehiago dago eta*

◆ **"zenbat gixonarru ete dekozuz kamaran" / " gixonan narruek dekotez kamaran"**

*Zenbat gizonarru ete daukazuz kamaran / Gizonen narruak daukadaz kamaran*

◆ **"...ezta geuerdiko euntzen eztule"**

*...ez da gauerdiko ahuntzaren eztula*

◆ **"lunes gernikes, golperik pez"**

*Lunes gernikes, kolperik be ez*

◆ **andidxe badan, tartana; txikidxe badan, enana;  
sekule ezta faltako zeresana**

*Handia bada tartana; txikia bada enana; sekula ez da faltako zeresana*

